



Bigarren Hezkuntzako Institutua

Gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzarako deialdia

Tolosan, 2019ko urriaren 4an

Guraso agurgarriak,

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuak, 2019eko irailaren 10ko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren [gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzetarako deia egiten duen agindua](#) argitaratu du irailaren 25ean 2019-2020 ikasturterako.

Hartzaileak

2019-2020ko ikasturteko LH, DBH eta Batxilergoko ikasleak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko zein itunpekoetakoak, baldin eta eskakizun hauek betetzen badituzte:

- Ikastetxea SARE_HEZKUNTZA GELAN izeneko sarean egotea 2014-2015eko ikasturtetik aurrera.
- Ikasle onuradunak unibertsitateaz kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko beketarako edo ikasketa-laguntzetarako deialdiko beka bat jaso izana 2018-2019 ikasturtean, eskola-materialaren atalean.



Gure ikastetxea, SARE_HEZKUNTZA GELAN izeneko sarean dagoenez zuen seme-alaba diru-laguntza honen onuraduna izan daiteke, baldin eta **iazko deialdian parte hartu ez bazuen**.

Prestazio ekonomikoa

Eskatzaile bakoitzarentzako laguntza **berrehun (200) euro izango da gehienez**, eta muga izango da gailu bakoitzaren fakturaren bidez justifikatutako diru-kopurua. Irizpide horiek aplikatu ondoren eman beharreko laguntzetan ateratzen den guztizko kopurua deialdiaren 2. artikuluan adierazitako aurrekontu-kreditua baino handiagoa bada, onuradun bakoitzari kalkulatu zaizkion zenbatekoak proportzioan murriztuko dira, laguntzen guztizkoa aipatutako mugara egokitu arte.

Eskaera nola egin: ([hemen laguntza dokumentua](#))

Hiru aukera daude:

- [Ziurtagiri digitalaren bidez](#)  sartuta (NAN, lizenpe txartela...) edo itsasontzien joko erabilia (B@kq).
Betetzeko epea: 2019ko irailaren 26tik urriaren 25era, biak barne.
Modalitate honetan ez da eskabide-formularioa ikastetxean aurkeztu behar.
- [Sisteman erregistratuta](#) , helbide elektroniko baten bidez eta honako bide hauetako bati jarraituta: HIA (Hezkuntzako Identifikazio Agiria) / NAN.
Betetzeko epea: 2019ko irailaren 26tik urriaren 25era, biak barne.
Ikastetxean aurkezteko epea (**beharrezkoa**): 2019ko urriaren 25era arte, egun hori barne, idazkaritza-ordutegia amaitu baino lehen.



Bigarren Hezkuntzako Institutua

- **Ikastetxean bertan:** 2019ko urriaren 25a bitartean, idazkaritza-ordutegia amaitu baino lehen. Ikasle bakoitzak atxikitutako eskabide orria bete beharko du. Inprimatu eta guraso edo legezko tutoreak sinatu ondoren, fakturarekin batera eskabidea ikaslearen ikastetxeko zuzendariari aurkeztuko dio. [Eskabide orria](#)

Informazio gehiagorako hona hemen [deialdirako lotura](#). Eta zalantzarik izanez gero deitu ikastetxeko idazkaritzara 943899289.

Adeitasunez,

Jose Ramon Zalakain
Zuzendaria